

Zer dira eta nola detektatu *fake news*ak?

Sekuentzia didaktiko honetan, *fake news* edo albiste faltsuei erreparatuko diegu.

Gaiaren inguruan jarduteko honako ariketa hauek egiteko aukera izango duzu:

- Gaiaren murgiltzeko, bideoa ikusi eta, binaka, bi galderari erantzun.
- *Fake news*ak detektatzeko gida irakurri eta, banaka, galderari erantzun.
- Binaka, identifikatu testuan aholkuak emateko erabili diren baliabideak.
- Binaka, albiste faltsuen aurrean egoki jokatzeko aholkuak eman.
- Idatzi hiru titular, bi benetakoak, eta bat, faltsua. Ondoren, trukatu titularrak eta saiatu *fake news*ak identifikatzen.

Oharra: Ikasgelan ez bazaude, talde-jarduera hau egiten hasi aurretik, adostu irakaslearekin batera zuen arteko komunikazio-tresna: foroa, posta elektronikoa, WhatsApp, Teams, Hangouts, Google Duo, Skype ...

1. Egiazko albistea ala *fake news*a?

Bideoa ulertu


Informazio gehiegi jasotzen dugu eta horrek desinformazioa dakar. **Binaka, ikusi bideoa eta erantzun bi galdera hauei:**



<https://labur.eus/djot4>



- Gogoan duzu horrelako albisteren bat?



- Ikusi duzu Nepaleko lurrikararen ondoren zabaldu den argazkia?

- Zein? Bi ume besarkatuta agertzen direnekoa?

- Bai, horixe bera! Ez al da hunkigarria?


- Erne ibili! Atzo irakurri nuen Vietnamgo herrixka batean atera zutela 2007an...



- Nola eragiten digute albiste faltsuek?



Argazkia: Pxhere



Testua irakurri

Zeintzuk dira albiste faltsuen ezaugarriak? Nola detektatu ditzakegu?
Hona hemen EITBk *fake news*ak detektatzeko proposatutako gida:



Fake newsak detektatzeko gida

1. Egilea. Sinaturik ez badago, ez zaitez fidatu. Anonimoak izaten dira, ez dute iturri ofizialik aipatzen, eta edukiak partekatzerara gonbidatzen dute.
2. Iturria ezezaguna bazaizu, ez sinetsi. Konfiantzazko iturri batek idatzi duela baieztatu. Ezezaguna bada, ikus "informazioa" atala eta ezagutu iturria sakonago.
3. Zuk sinatuko ez bazenu, ez ezazu partekatu. Irakurri ondoren egin gogoeta, eta soilik interesgarriak direnak partekatu.
4. Formatua arrotza bazaizu, jarri zalantzan. Izenburu deigarriak izaten dituzte, letra larriz idatzita egoten dira, eta gehiegikeriaz jotzen dute harridura marka eta ikur arraroetara.
5. Akatsak baditu, ez da seinale ona. Mota honetako albisteek ortografia zein idazkera akatsak izaten dituzte.
6. Beste komunikabideetan ez badago, susmoak izan. Berria ez bada beste komunikabideren batean azaltzen, seguruenik ez da egiazkoa.
7. Ondo begiratu zein den data. Egiazko berriak gertatu eta berehala sortu eta zabaltzen dira. Albiste faltsuak, berriz, gerora sortzen dira edota data jakinik gabe. Gainera, ohikoa izaten da gaur egungoak direla pentsatzea, albiste zaharkituak zabaltzea.

8. Argazkietan egon daiteke gakoa. Irudi eta argazki manipulatuak edo testuingurutik ateratakoak erabiltzen dituztenak.
9. Ondo aztertu URL helbideak eta egiazkoak direla frogatu. Albiste faltsuak sortzen dituzten webguneek komunikabide ezagunen URL edo web orrialdeen tankera izaten dute.
10. Familiartekoek eta lagunek ere huts egin dezakete. Guztiok eror gaitezke albiste faltsuetan, eta, ondorioz, haiek partekatu. Egiaztatu jasotzen duzuna.

Iturria: Eitb

Banaka, arretaz irakurri eta erantzun:

- Zerrendan agertzen den pauso edo aholkuren bat jarraitzen duzu? Zein(tzuk)?

Testua irakurri hizkuntzari erreparatuz

Zer hartu behar dugu kontuan albiste faltsuak detektatu ahal izateko?

Binaka jarri eta identifika itzazue testuan aholkuak emateko erabili diren baliabideak:



BALDINTZA

- *Sinaturik ez badago, ez zaitez fidatu.*

-
-
-
-
-
-
-
-

AGINTERA

- *Ondo begiratu zein den data.*

-
-
-
-
-
-
-
-

Argazkia: Pxhere



2. Desinformazioaren aurrean, nola jokatu?

Testua irakurri eta gero

*Fake news*ak identifikatuta, zer egin behar da? Nola jokatu behar dugu?

Binaka, eman aholkuak.

Oker dagoela frogatu, errespetuz.

Uertzen saiatu: zerk bultzatu du *fake news*a zabaltzera?

Zuzenketa egin, deserosoa izan arren.

Konbentzitzen saiatu, argumentu sendo eta errazekin

...

AHOLKUAK

- 1) _____
- 2) _____
- 3) _____
- 4) _____
- 5) _____
- 6) _____
- 7) _____

Baliabide gehiago...

Komeni da albiste faltsua zabaldu duen pertsonarekin hitz egitea!

*Ez ahaztu zuk ere informazio faltsua sinetsi eta zabaldu dezakezula. Beraz, **hobe duzu** enpatiaz jokatzeari!*

3. Kazetari-lanetan...

Ikusi dugun bezala, informazioa ondo irakurtzen eta interpretatzen jakitea oso garrantzitsua da desinformazioa ekiditeko.


Banaka, idatzi hiru titular; horietako bi, benetako albisteetan oinarrituta, eta bat, faltsua.



1. TITULARRA



2. TITULARRA



3. TITULARRA



Ondoren, trukatu zure titularrak klasekide batekin eta saia zaitzte *fake newsak* identifikatzen.



Ezetz asmatu!



Erantzun-orria

Testua irakurri hizkuntzari erreparatuz

Zer hartu behar dugu kontuan albiste faltsuak detektatu ahal izateko?

Binaka jarri eta identifika itzazue testuan aholkuak emateko erabili diren baliabideak:



BALDINTZA

- *Sinaturik ez badago, ez zaitez fidatu.*
- Iturria ezezaguna bazaizu, ez sinetsi.
- Ezezaguna bada ikus "informazioa" atala eta ezagutu iturria sakonago.
- Zuk sinatuko ez bazenu, ez ezazu partekatu.
- Formatua arrotza bazaizu, jarri zalantzan.
- Akatsak baditu, ez da seinale ona.
- Beste komunikabideetan ez badago, susmoak izan.
- ez bada beste komunikabideren batean azaltzen, seguruenik ez da egiazkoa.

AGINTERA

- *Ondo begiratu zein den data.*
- Irakurri ondoren egin gogoeta (...)
- Ondo aztertu URL helbideak eta egiazkoak direla frogatu
- Egiaztatu jasotzen duzuna.

Transkripzioa

Kazetaria. Sare sozialetan ia egunero irakurtzen ditugu sumoa eragiten diguten albisteak. Informazioaren aroan *infoxikatuta* gaudela diote aditu batzuek eta gu kalera irten gara egia eta gezurra ondo bereizten ditugun ikustera. Hiru albiste faltsu aukeratu ditugu. Ea sinisten dituenik aurkitzen dugun.

O letra erabili gabe tesia idatzi duen feminista. Podemosekoek La Almudenan pixa egin dute. Pedro Sanchezek Katalunian espainiera atzerriko hizkuntzatzat hartzeko baimena eman du.

Zein da egia, zein da faltsua?

Elkarrizketatua 1. Ba nire ustez hau da egia. Pedro Sánchez, baina ea nork egin duen, nork idatzi duen albiste hori.

Elkarrizketatua 2. Egiazkoa Twitterrekoa. Ba bueno, igual hau, feministarena egiazkoa eta ez, aldrebes.

Elkarrizketatua 3. Eta feminista, egia dirudi. Orain modan dago, ez? Nik ezagutzen ditut pertsonak ez dutela (ez dutenak) erabiltzen O hizkia.

Elkarrizketatua 4. Bai. Uste dut hirurak ez dira (direla) normalak, ez dira, ba hori, notizia normalak. Baina bueno, izan ahal dira, ez?

Aditua. Pertsonaia politikoengan dago jarrita fokoa. Eta hori bada herritarrak ez informatzeko beste modu bat.

Off ahotsa. Fake news zaparradak demokraziari berari egiten dio kalte. Eta etorkizunari begira gauzak beltz ikusten dituzte askok.

Aditua. Jende askorengan sortzen duen inpresioa da: “Ezin dut ezertxo ere sinestu. Eta denak igualak dira”. Horrek zinizismo kolektibo bat sortzen du eta herritarrak desmobilizatu egiten ditu.